

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO  
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTATU NAGUSIA

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

*Diru laguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2016ko deialdia: Gipuzkoako udalei zuzendutako laguntzak, udal proiektuak gauzatzeko aniztasunean bizikidetzaren gaitetan.*

Diputatuen Kontseiluak, 2016ko irailaren 6ko bileran, ondorengo erabakia hartu du:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburu estrategikoetako bat da herritarren arteko elkarbizitza finkatzea eta herritarren jarrera, balore eta portaera demokratikoetan sakontzea.

Aipatutako helburu estrategikoaren esparruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak aniztasunari ekiteko eta bultzatzeko proiektuak sustatu nahi ditu giza eskubideen ikuspegitik, elkar ezagutzeko espazioak erraztuz eta Gipuzkoan gaur egun dagoen aniztasuna ikusgarri eginez. Azken helburua da pertsona guztien eskubideak hobeto defendatzea, errespetatzea eta bete daitezen bermatzea.

Udalak, herritarrengandik gertuen dauden erakundeak direnez, eta gure gizartearen aniztasunaren isla direnez, oso garrantzitsuak dira elkarbizitza espazioen eraikuntzan.

Gauzak horrela, erabaki honen bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalentzat aniztasunean bizikidetzaren gaian diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta 2016ko deialdia onartzen dira.

Horrenbestez, diputatu nagusiak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onartzea Gipuzkoako udalei zuzendutako diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak, udal proiektuak gauzatzeko aniztasunean bizikidetzaren gaitetan; oinarri horiek erabaki honen I. eranskinean jasotzen dira.

*Bigarren.* Onartzea aipatu diru laguntzen 2016ko deialdia, erabaki honen II. eranskinean jasotzen dena.

*Hirugarren.* Baimentzea ehun eta hogeita mila euroko (120.000,00 €) gastua, aurrekontuko 1 0140.400.461.01.01 2016 kontu sailaren kargura.

*Laugarren.* Erabaki honek onartzen dituen oinarri arautzaileek ondorioak izango dituzte Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egun beretik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Admi-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DIPUTADO GENERAL

Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos

*Bases reguladoras y convocatoria 2016 de subvenciones destinadas a ayuntamientos de Gipuzkoa para la realización de proyectos municipales en materia de convivencia en la diversidad.*

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 6 de septiembre de 2016, ha adoptado el siguiente acuerdo:

La Diputación Foral de Gipuzkoa tiene como uno de sus objetivos estratégicos consolidar la convivencia ciudadana y profundizar en las actitudes, valores y comportamientos democráticos de la ciudadanía.

En el marco del referido objetivo estratégico, la Diputación Foral de Gipuzkoa quiere impulsar aquellos proyectos encaminados a abordar y promover la diversidad desde un enfoque de derechos humanos, favoreciendo espacios para el mutuo conocimiento y visibilizando toda la diversidad existente hoy en día en Gipuzkoa, con el objetivo final de lograr una mejor defensa, respeto y garantía del cumplimiento de los derechos de todas las personas.

Los ayuntamientos, como nivel institucional más cercano a la ciudadanía y representantes de la pluralidad de nuestra sociedad, juegan un papel de gran importancia en la construcción de espacios de convivencia.

Por lo expuesto, mediante el presente acuerdo se aprueban las bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones en materia de convivencia en la diversidad dirigidas a ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa y su convocatoria correspondiente al año 2016.

En su virtud, a propuesta del diputado general, y previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones destinadas a ayuntamientos de Gipuzkoa para la realización de proyectos municipales en materia de convivencia en la diversidad, que se acompañan al presente acuerdo como anexo I.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria 2016 de las citadas subvenciones que se acompaña al presente acuerdo como anexo II.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de ciento veinte mil euros (120.000,00 €) con cargo a la partida presupuestaria 1 0140.400.461.01.01 2016.

*Cuarto.* Las bases reguladoras que se aprueban en virtud del presente acuerdo surtirán efectos desde el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de

nistrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, horren aurretik, interesatu partikularrek aukera dute berraztertzeko hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatu Kontseiluari, hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertze-koaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsioa aurkez daiteke.

Donostia, 2016ko irailaren 7a.—Ander Arzelus Aramendi, Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzako burua.

(6270)

#### I. ERANSKINA

*Gipuzkoako udalei zuzendutako diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak, udal proiektuak gauzatzeko aniztasunean bizikidetzaren gaitetan.*

##### 1. Xedea.

1.1. Oinarri hauek arautzen dituzten diru laguntzen xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalek udal proiektuak egitea, hartara aniztasunari ekiten eta bultzatzen lagundu dezaten giza eskubideen ikuspegitik, elkar ezagutzeko espazioak erraztuz eta Gipuzkoan gaur egun dagoen aniztasuna ikusgarri eginez. Azken helburua da pertsona guztien eskubideak hobeto defendatzea, errespetatzea eta bete daitezen bermatzea.

Zehazki, diru laguntzen bidez, helburua da udalerrietan espazioak sortzea udalerriko pertsonen artean dagoen aniztasuna ikusgarri egiteko, desberdintasuna errespetatuz eta oinarritzat hartuta giza eskubideak eta epe luzerako ikuspegia.

1.2. Jarduerak edo proiektuak ondoko printzipio nagusi hauetan oinarrituko dira:

a) Aniztasunari ekitea eskubideen ikuspegitik, arretoa berezia jarriz ez baztertzeko printzipioari eta aukera berdintasuna bultzatuz.

b) Aniztasuna sustatzea (jatorri, etnia, kultura, hizkuntza, erlijio, sexu, egoera fisiko, sexu orientazio eta beste arrazoi batzuegatiko aniztasuna), baldintza berdinetan parte hartzeko pertsona orok duen eskubidearekin batera, gizarte kohesioa eta bizikidetzaren sustatzeko faktore gisa.

c) Espazioak eta ekintzak antolatzea eta sortzea erraztea, aukera emango dutenak elkar ezagutzeko eta aitortzeko, sinergiak sortzeko eta adostutako proposamenak eraikitzeko.

d) Gipuzkoan dagoen aniztasuna ikusgarri egitea, bai jatorria gaur egungo migrazio mugimendua duenarena, bai gure lurraldean aurretik izandako gizartearen bilakaeratik eratorritakoarena.

e) Gure gizarteak berezkoa duen aniztasuna ikusgarri egitea, generoaren, hizkuntzaren, sexu orientazioaren, gaitasun-aniztasunaren, eta abar arazoengatik.

1.3. Jarduera eremuek edo proiektuek gutxienez ondorengo ardatzetako bat izan beharko dute:

a) Diagnostiko kualitatibo eta kuantitatiboak egiteko programak, baliagarriak izan daitezkeenak udalerrietan aniztasuna kudeatzeko (aniztasun kulturala, jatorrizkoa, sexu orientazioa, gaitasun-aniztasuna, etab.).

b) Pertsona guztien parte-hartzea bultzatzeko programak, aukera berdintasunean, udalerriko espazio kultural, sozial eta politikoetan.

lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 7 de septiembre de 2016.—El jefe de la Secretaría del Área del Diputado General, Ander Arzelus Aramendi.

(6270)

#### ANEXO I

*Bases reguladoras para la concesión de las subvenciones destinadas a ayuntamientos de Gipuzkoa para la realización de proyectos municipales en materia de convivencia en la diversidad.*

##### 1. Objeto.

1.1. Es objeto de las subvenciones, cuyo otorgamiento regulan las presentes bases, la realización por los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa de proyectos municipales que contribuyan a abordar y promover la diversidad desde un enfoque de derechos humanos, favoreciendo espacios para el mutuo conocimiento y visibilizando toda la diversidad existente hoy en día en Gipuzkoa, con el objetivo final de lograr una mejor defensa, respeto y garantía del cumplimiento de los derechos de todas las personas.

En concreto, a través de estas subvenciones se pretende crear en los municipios espacios para visibilizar la diversidad existente entre las personas del municipio, desde el respeto a la diferencia y teniendo como base los derechos humanos y una visión a largo plazo.

1.2. Los principios generales sobre los que se basarán las actuaciones o proyectos serán los siguientes:

a) Abordar la diversidad desde un enfoque en derechos, con especial atención al principio de no-discriminación e impulsando la igualdad de oportunidades.

b) Promover la diversidad (incluyendo la diversidad por origen, etnia, cultura, lengua, religión, sexo, condición física, orientación sexual y por otros motivos), junto con el derecho de toda persona a participar en igualdad de condiciones, como factor para fomentar la cohesión social y la convivencia.

c) Favorecer la articulación y creación de espacios y acciones que posibiliten el mutuo conocimiento y reconocimiento, la generación de sinergias y la construcción de propuestas consensuadas.

d) Visibilizar la diversidad presente en Gipuzkoa, tanto la de origen en los movimientos migratorios contemporáneos como la diversidad derivada de anteriores evoluciones sociales de nuestro territorio.

e) Visibilizar la diversidad inherente a nuestra sociedad por motivos de género, lengua, orientación sexual, diversidad de capacidades, etc.

1.3. Los ámbitos de las actuaciones o proyectos deberán referirse como mínimo a uno de los siguientes ejes:

a) Programas para la realización de diagnósticos cualitativos y cuantitativos que puedan ser útiles para la gestión de la diversidad en los municipios (diversidad cultural, de orígenes, por orientación sexual, diversidad de capacidades, etc.).

b) Programas orientados a impulsar la participación de todas las personas en igualdad de oportunidades en los diferentes espacios culturales, sociales y políticos municipales.

c) Sentsibilizazioko eta prestakuntzako programak, aniztasuna bultzatuko dutenak eskubideen eta ez baztertzearen ikuspegitik.

d) Migratzaileei harrera egiteko protokoloak sortzeari lehenetsuna emango dioten programak, protokolo horiek ez dauden udalerrietan, eta protokolo hori daukatenetan, berriz, hori garatzea eta ezartzea sustatuko duten programak.

Harrera egiteko, etorrerako, euskararen ezagutza eta erabilerara sustatzeko, eta udalerrian finkatzeko eta elkarbizitzeko programak baloratuko dira, betiere erakundeen, gizarte eragileen eta, orokorrean, herritarren inplikazioa bermatuz.

e) Errefuxiatuen inguruan gaur egun nazioartean dagoen krisi egoera kontuan hartuta, gure gizartean errefuxiatuen giza eskubideen babesa eta sentsibilizazioa sustatuko dituzten programak.

## 2. Erakunde onuradunak.

2.1. Oinarri hauetan araututako diru laguntzak eskatu ahal izango dituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek.

2.2. Gainera, oinarri hauetan araututako diru laguntzen onuradun izateko, entitateak ez du sartuta egon behar 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzenak, 12. artikuluan ezartzen dituen debeku kasuetan; eta oinarri hauetan adierazitako gainerako baldintzak ere bete behar ditu.

Ondorio horietarako udalek ardurapeko aitortpena aurkeztu beharko dute.

2.3. Udal bakoitzak proiektu bat aurkez dezake gehienez.

## 3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

3.1. Gastu hautagarriak dira, udalak aurkezten duen jardueraren aurrekontu zehaztuan dauden gastuak, baldin eta garapenarekin zerikusi zuzena badute. Adibidez: aholkularitza eta laguntza teknikoak, prestakuntza, joan-etorriak, aretoak alokatzea, zabalkundea, materiala, inprimatzeak, eta abar.

3.2. Eskatzaileari ez zaizkio inola ere diruz lagunduko ez funtzionamendu arrunteko gastuak, ezta bere langileen gastuak ere.

3.3. Ez dira diruz lagunduko inbertsio gastuei dagozkienak. Zeharkako zergak (BEZa, adibidez) ez dira inoiz diruz lagunduzkoak berreskuratu edo konpentsatzeko gai direnean.

3.4. Diruz lagundu daitezkeen gastuen barruan, diruz lagundutako jardueraren zabalkunde gastuak direla eta diru laguntza zehazteko kontuan hartuko den zenbatekoak ezin du gaitu programaren edo jardueraren aurrekontuaren % 20a; non eta diruz lagundutako proiektuaren xedea ez den zabalkundeko argitalpenak edo materialak editatzea edo sentsibilizazioko edo zabalkundeko kanpaina bat egitea, kasu horretan ez baita adierazitako muga hori ezarriko.

3.5. Halaber, gastu guztiak merkatuko batez besteko prezioetara egokituko dira.

3.6. Eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan oinarri honetan diruz laguntzekoak ez diren gastuak sartuko balitu, edo diruz laguntzekoak izanik ezarritako muga gaitutako balute, edo nabarmen gehiegizkoak balira, kendu edo garbitu egingo dira, diru laguntzaren muga zehazteko oinarri gisa erabiliiko den gastu lagungarrien aurrekontua finkatzeko.

3.7. Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzen 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 28. artikuluan, eta 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez

c) Programas de sensibilización y formación que promuevan la diversidad desde un enfoque en derechos y la no-discriminación.

d) Programas que prioricen la creación de protocolos de acogida para personas migrantes en municipios donde no existan y que promuevan su desarrollo e implementación en aquellos donde ya se cuenta con dicho protocolo.

Se valorarán los programas orientados a la acogida, llegada, promoción del conocimiento y uso del euskera, asentamiento y convivencia en el municipio, garantizando la implicación de instituciones, agentes sociales y ciudadanía en general.

e) Programas que, atendiendo a la situación de crisis internacional actual en torno a las personas refugiadas, promuevan la defensa y sensibilización en nuestra sociedad hacia los derechos humanos de las personas refugiadas.

## 2. Entidades beneficiarias.

2.1. Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases los ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2.2. Además, para obtener la condición de entidad beneficiaria de las subvenciones reguladas en las presentes bases, las citadas entidades no deberán hallarse incursas en ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y deberán cumplir con los demás requisitos que se señalan en las presentes bases.

A estos efectos, los ayuntamientos tendrán que presentar la correspondiente declaración responsable.

2.3. El número máximo de proyectos a presentar por cada ayuntamiento es de uno.

## 3. Gastos subvencionables.

3.1. Se considerarán gastos elegibles aquellos gastos que figurando recogidos en el presupuesto desglosado y detallado de la actividad que presente el ayuntamiento estén directamente vinculados a su desarrollo, como pueden ser: asesoría y asistencia técnica, formación, desplazamientos, alquiler de salas, difusión, materiales, imprenta, etc.

3.2. En ningún caso serán subvencionables los gastos derivados del funcionamiento normal ni los gastos de personal del ayuntamiento solicitante.

3.3. No serán subvencionables los gastos de inversión. Tampoco se considerarán gastos subvencionables los impuestos indirectos (como el IVA) cuando sean susceptibles de recuperación o compensación.

3.4. Dentro de los gastos subvencionables, el importe relativo a los gastos de difusión de la actividad subvencionada que se tomará en consideración para la determinación de la subvención no podrá rebasar el 20% del presupuesto del programa o actividad, salvo que el proyecto subvencionado tenga por objeto la edición de publicaciones o materiales divulgativos o consista en una campaña de sensibilización o de difusión, en cuyo caso no operará el límite señalado.

3.5. Así mismo, todos los gastos deberán ajustarse a los precios medio de mercado.

3.6. En caso de que el presupuesto presentado por la entidad solicitante incluyera gastos considerados como no subvencionables en la presente base, o que siéndolo superasen el límite fijado para ellos, o fueran manifiestamente exagerados, se procederá a su eliminación o depuración al objeto de fijar el presupuesto de gastos subvencionables que servirá de base para la determinación del límite de la subvención.

3.7. A efectos de lo establecido en el artículo 28 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en el artículo 44 de su regla-

onartutako Erregelamenduak 44. artikuluan ezarritakoari jarraituz, aukera egongo da diru laguntzen xede diren jarduerak gauzatzea erabat azpikontratatzeko.

Kasu horretan, erakunde onuradunak egiten duen kontratua aniztasunean bizikidetzarako prozesuak egiten esperientzia kreditatzen duen pertsona fisiko edo juridiko batekin izan behar du.

#### 4. Diru laguntzetarako eskaerak aurkezteko modua eta epea.

4.1. Eskaerak, dagokion dokumentazioarekin batera, Internet bidez bakar-bakarrik aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoa (<https://www.gfaegoitza.eus>) barrena, «diru laguntzen atarian» sartu eta han eskuragarri jarritako inprimaki espezifikoak betez. Eskaerak eta dokumentazio osagarria aurkezterakoan foru dekretu hauek bete behar dira: 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duena, eta 2015eko azaroaren 30eko 7/2015 Foru Dekretua, Diputatu Nagusiaren Alorreko diru laguntzei buruzko espedienteen hainbat tramite bitarteko elektronikoen bidez egiteko obligazioa arautzen duena.

4.2. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera-orri normalizatuak eskuragarri egongo dira Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoa (<https://www.gfaegoitza.eus>).

4.3. Eskaerak aurkezteko epea urte bakoitzeko deialdian ezarriko da.

4.4. Erakunde eskatzaileek ez dituzte aurkeztu beharko jada Gipuzkoako Foru Aldundiak badituen dokumentuak, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 35.f) artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, betiere dokumentuak indarrean badaude eta aurkeztu ondoren ez badira bost urte igaro. Horrelakoetan, eskaera orrian adierazi beharko da dokumentu horiek zein organoren aurrean edo bulegotan eta noiz aurkeztu ziren edo, hala badagokio, egin ziren.

4.5. Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 71.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, zuzentzen ez baditu, eskaeran atzera egin duela uler-tuko dela, aipatu legearen 42.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4.6. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak eskatzaileari eskatu ahalko dio eskaera ebaluatu eta erabakia hartzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri oro.

#### 5. Emateko prozedura.

5.1. Diru laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da eta deialdi eta hautaketa prozesu bakarra egingo da.

5.2. Prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

#### 6. Diru laguntzen ebaluazioa eta zenbatekoa.

6.1. Deialdira aurkezten diren eskaerak baremo honen arabera baloratuko dira:

a) Zeharkakotasun irizpidea txertatzea udaleko alor desberdinen artean jarduketak ezartzeko: 10 puntu arte.

mento de desarrollo (aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril) podrá subcontratarse la totalidad de la ejecución del objeto de las subvenciones.

En este caso, el contrato que realice la entidad beneficiaria deberá ser con una persona física o jurídica que acredite tener experiencia en procesos de convivencia en la diversidad.

#### 4. Forma y plazo de presentación de las solicitudes de subvención.

4.1. Las solicitudes, junto con el resto de documentación, deberán presentarse exclusivamente vía Internet, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (<https://www.gfaegoitza.eus>), accediendo al «portal de subvenciones» y cumplimentando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, y en el Decreto Foral 7/2015, de 30 de noviembre, por el que se regula la obligación de realizar por medios electrónicos determinados trámites de los expedientes de subvenciones del Área del Diputado General.

4.2. La información de la convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (<https://www.gfaegoitza.eus>).

4.3. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria anual.

4.4. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que ya obren en poder de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con lo previsto en el artículo 35.f) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y el Procedimiento Administrativo Común, siempre que sigan vigentes y hayan transcurrido menos de cinco años desde que dichos documentos fueron presentados. En estos casos, se deberán indicar en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos.

4.5. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 42.1 de ese mismo texto legal.

4.6. La Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

#### 5. Procedimiento de concesión.

5.1. El procedimiento de concesión de las subvenciones será el de concurrencia competitiva mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.

5.2. El procedimiento se iniciará de oficio, mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

#### 6. Evaluación y cuantificación de las subvenciones.

6.1. Las solicitudes que se presenten a la convocatoria se valorarán de acuerdo con el siguiente baremo:

a) Incorporación del criterio de transversalidad entre las diferentes áreas municipales para implementar las actuaciones: Hasta 10 puntos.

b) Proiektuan herritarrek parte hartzea: proiektuan jatorri, kultura eta orientazio desberdineko pertsonak sartzea; gaiarekin lotura duten erakunde eta gizarte eragileak sartzea: 20 puntu arte.

c) Giza Eskubideak abiapuntutzat hartuta aniztasuna hedatzeko beste neurri batzuk aukeratutako ardatzen arabera 1.3 oinarriak aurreikusten dituenen artean (giza eskubideen ekimen pedagogikoak; laguntzeko ekimenak; harrera politika garatzea «harrera udal protokolak» sortuz edo garatuz; bizikidetzaren eta giza eskubideetan gaietan herritaren formakuntza): 20 puntu arte.

(\* ) Neurri bakoitza 10 puntu arte baloratuko da, betiere emandako puntuazioen batuketak 20 puntuen muga gainditu gabe.

d) Hizkuntza berdintasuna sustatzea proiektua gauzatzean: 10 puntu arte.

e) Genero berdintasuna sustatzea proiektua gauzatzean: 10 puntu arte.

f) Metodologia egokia programan ezarritako helburuak lortzeko (partaidetzako metodologia erabiltzen dute, kronograma egokia, azaltzen ditu baliabide teknikoak eta giza baliabideak proiektua garatzeko, iraunkortasun ekonomikoa): 20 puntu arte.

g) Ebaluazio adierazleak sartzea proiektuan, hartara proiektuaren eragina balioesteko (datuak sexuka, adinaren arabera eta hizkuntzaren erabilera aukera dagoen jardueretan): 10 puntu arte.

6.2. Diru laguntza jasotzeko, 60 puntu lortu beharko dituzte gutxienez proiektuek.

6.3. Diru laguntza ezingo da izan, inola ere, egokitzat jotzen den aurrekontuaren %80a baino handiagoa, betiere aurrekontua 3. oinarriko seigarren atalean ezarritako irizpideei jarraituz garbitu ondoren. Diru laguntzaren gehieneko ehunekoa likidazioa egiterakoan ere kontuan hartuko da, amaierako kontu zuritzailea aurkeztu ondoren, 12. oinarri arautzailean ezarritako irizpideei jarraituz.

6.4. Proiektu bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, ezarritako aurrekontua 60 puntu baino gehiago lortu duten eskaera guztien puntuaren baturaren artean zatituko da, eta horrela puntuaren balioa aterako da. Ondoren, balio hori proiektu bakoitzak lortutako puntu biderkatuko da, eta horrela bakoitzari dagokion diru laguntza aterako da.

Hainbanaketa egin ondoren proiektu bati dagokion diru laguntza 7.1 oinarriko ezarritakoa baino gehiago bada, gelditzen den kopurua berriz hainbanatuko da gainerako eskaeren artean. Behin eta berriz gauza bera gertatzen bada, berdin jokatuko da diru laguntza eskaera guztiei erantzun arte.

## 7. Diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa eta bateragarritasuna.

7.1. Nolanahi ere, diru laguntza ez da izango diruz lagundu daitezkeen gastuen %80 baino gehiagokoa; eta gehienez ere 12.000 euro emango da proiektu bakoitzeko.

7.2. Ildo horretatik, diru laguntzaren xede diren jarduerak garatzeko, eskatzaileak proiektuaren kostu osoaren %20a adinako ekarpena egin beharko du gutxienez; edo %20ko kofinantzioa izan beharko du.

7.3. Oinarri hauen xede diren diru laguntzak bateragarriak izango dira Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk xede bererako eman ditzakeen diru laguntza, sarrera edo baliabideekin, betiere beste diru laguntzen araudiek xedatu dezaketenen kaltetan gabe.

b) Incorporación de la ciudadanía en el proyecto: inclusión en el proyecto de personas de diferentes orígenes, culturas, orientaciones; inclusión de las diferentes asociaciones y agentes sociales implicados en el tema: Hasta 20 puntos.

c) Desarrollo de medidas dirigidas a la difusión de la diversidad desde los derechos humanos según el o los ejes de trabajo elegidos entre los previstos en la base 1.3 (iniciativas pedagógicas en derechos humanos; iniciativas de apoyo; desarrollo de una política de acogida mediante la creación o desarrollo de «planes municipales de acogida»; o formación de la ciudadanía en temas de convivencia y derechos humanos): Hasta 20 puntos.

(\* ) Cada medida de difusión será valorada hasta un máximo de 10 puntos, no pudiendo superar la suma de las puntuaciones obtenidas en este criterio los 20 puntos.

d) Promoción de la igualdad lingüística en la implementación del proyecto: Hasta 10 puntos.

e) Promoción de la igualdad de género en la implementación del proyecto: Hasta 10 puntos.

f) Metodología adecuada para lograr los objetivos establecidos en el programa (uso de metodología participativa, cronograma adecuado, descripción de los medios técnicos y humanos para el desarrollo del proyecto, sostenibilidad económica): Hasta 20 puntos.

g) Incorporación al proyecto de indicadores de evaluación que permitan valorar el impacto del proyecto (con datos desagregados por sexos, edad, y uso del idioma en aquellas actividades en que sea posible): Hasta 10 puntos.

6.2. Los proyectos, para ser subvencionados, deberán obtener un mínimo de 60 puntos.

6.3. En ningún caso, el importe de la subvención que se conceda podrá superar el 80% del presupuesto considerado idóneo a partir de la depuración que se realice del mismo siguiendo los criterios establecidos en la base 3.6. Este porcentaje máximo de subvención será tenido también en cuenta al efectuar la liquidación de la misma, tras la presentación de la cuenta justificativa final en los términos de la base reguladora 12.

6.4. Para la determinación del importe de la ayuda que corresponda a cada proyecto, se dividirá el presupuesto establecido entre la suma total de puntos de todas las solicitudes que hayan superado los 60 puntos, obteniendo así el valor unitario del punto. A continuación, se multiplicará este valor unitario por el número de puntos alcanzado por cada proyecto, obteniéndose de este modo el importe de la subvención correspondiente.

Si, una vez realizado este prorrateo, la subvención que correspondiese a un proyecto fuera superior a lo establecido en la base 7.1, el importe sobrante será nuevamente prorrateado entre los restantes proyectos de subvención. De producirse nueva y sucesivamente este supuesto, se actuará de la misma manera hasta cubrir todas las subvenciones.

## 7. Cuantía máxima y compatibilidad de la subvención.

7.1. En cualquier caso la cuantía de la subvención no podrá exceder del 80% del importe de los gastos subvencionables, con un máximo de 12.000 euros por proyecto.

7.2. En este sentido, será requisito necesario que la entidad solicitante efectúe una aportación económica o cuente con una cofinanciación mínima del 20% del costo total del proyecto para el desarrollo de las actividades objeto de la subvención.

7.3. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

7.4. Oinarri hauetan araututako diru laguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

7.5. Diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo diru laguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke diru laguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea.

8. *Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.*

8.1. Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzaren ardura da diru laguntzak emateko prozedura antolatzea eta bideratzea.

8.2. Izapideen aldia hasteko diru laguntzaren eskaeraren aurre ebaluazioa egingo da. Horretarako, diru laguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen ote diren egiaztatu du Idazkaritzak.

8.3. Eskaerak Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak aztertuko ditu eta, behar izanez gero kanpoko adituen laguntzarekin, balorazio txostena egingo dute. Txosten hori Ebaluazio Batzordeari igorriko zaio, egindako ebaluazioaren emaitza emango duen ebazpen proposamena egin dezan; eta, ondoren, eskumena duen organoari aurkeztuko zaio, onar dezan.

8.4. Honela osatuko da Ebaluazio Batzordea: Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusia, batzordeburu; Diputatu Nagusiaren Alorraren idazkaria edo berak aukeratutako pertsona; eta Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzako teknikari bat, idazkari.

9. *Diru laguntzak emateko ebazpena.*

9.1. Diputatu nagusia da organo eskuduna oinarri haue-tako diru laguntzak ematea ebazteko.

9.2. Deialdiaren ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 59.6.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta, argitalpen egunaren biharamunetik hasita, jakinarazpena egintzat joko da lege-ondorio guztietarako.

9.3. Laguntzak emateko prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, gehienez ere, urteko deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; data horretan hasten baita prozedura ondorio guztietarako.

9.4. Aurreko atalean adierazitako gehienezko epea amaitzerako ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, interesatuek administrazioaren isiltasunez beraien eskaerak ezetsiak izan direla uler dezakete.

10. *Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.*

